# Uztaritze USTARITZ

12. HERRIKO INFORMAZIO ALDIZKARIA
BULLETIN D'INFORMATION MUNICIPAL N°12
URTARRILA 2020 / JANVIER 2020
www.uztaritze.eus

## URTE BERRI ON
## BONNE ANNÉE
## 2020



# SAR HITZA / MOT DU MAIRE

AURKIBIDEA / SOMMAIRE


## HIRIGINTZA / URBANISME
Plan Local d'Urbanisme (PLU) ... 4
Tokiko Hirigintza Plana (THP / PLU) ... 5
Travaux / Obrak ... 6

## HEZKUNTZA / EDUCATION
Uztaritzeko Gazte Gunea / Espace Jeunes Uztaritze ... 8
Je peux pas... j'ai centre de loisirs ... 9
Uztaritzeko Gazte Informazio gunea ... 10
Les écoles de la commune / Herriko eskolak ... 11

## HIZKUNTZA POLITIKA / POLITIQUE LINGUISTIQUE
UZTA HITZAN ... 12

## AGENDA 21
ENARGIA ... 14
Comité de quartier / Auzo batzordeak ... 15

## BREVES / LABURRAK
L'accessibilité numérique ... 16
Irisgarritasun digitala ... 17
Enregistrement des meubles de tourisme ... 18
Bake prozesua / Processus de paix ... 19

## TOLOSAREKIN SENIDETZEA / JUMELAGE TOLOSA ... 20

## GIZARTEA / SOCIAL
Semaine bleue / Aste urdina ... 22
Finance ton permis / Zure permisa diruzta ezazu ... 23
Baratze loratuak / Kardins fleuris ... 23

## ELKARTEAK / ASSOCIATIONS
30 ans de Lapurtarrak / Lapurtarrak 30 urte ... 24
Journée des associations / Elkarteen eguna ... 24

## OPOSIZIOA / OPPOSITION
Ustaritz avec Bon Sens ... 25
Unis à Gauche ... 26
Aimer Ustaritz ... 27

## EGOERA ZIBILA / ETAT CIVIL ... 28



**Argitaratze zuzendaria** / Directeur de publication : Bruno CARRERE
**Diseinua** / Mise en page : Harri IDOATE - Izarte Komunikazioa - www.izarte.com
**Inprimategia** / Imprimerie : Imprimerie ABERADERE - 64100 Baiona / Bayonne



Bruno
CARRERE
Auzapeza / Maire

Chers Uztariztar,

Ce bulletin municipal sera le dernier du mandat qui s'achève et il sera spécifique puisque nous sommes entrés depuis septembre en période pré-électorale. Il doit donc obéir aux prescriptions du code électoral qui stipule que « aucune campagne de promotion publicitaire des réalisations ou de la gestion… ne peut être organisée ».

Le présent bulletin ne comprendra donc pas de description d'actions menées pendant le mandat, ni de présentations des projets d'avenir. Il est donc constitué d'informations relatives aux évènements majeurs depuis le dernier bulletin, soit pendant le dernier semestre 2019.

Nous y retrouverons en particulier un état des lieux de l'avancée du Plan Local d'Urbanisme (PLU), un retour sur les évènements annuels qui se déroulent en automne (semaine bleue, Uzta Hitzan) , la célébration « retour » des 30 ans du jumelage avec Tolosa, etc …

Les évènements ont été nombreux dans notre commune et le détail de ce bulletin vous en convaincra.

En vous souhaitant à toutes et tous une excellente année 2020 !

Uztariztar maiteak,

Herri aldizkari hau kargualdi honetako azkena izanen da eta berezia izanen da. Izan ere, irailetik hauteskunde aitzineko garaian sartuak gara. Herri aldizkariak bozketa kodearen gomendioei obeditu behar die beraz. Zera diote: « lorpenen edo kudeaketaren publizitatea sustatzeko kanpainarik ezin da antolatu ».

Beraz, aldizkari horretan ez da sartuko agintaldian egindako ekintzen deskribapena, ez eta etorkizuneko proiektuen aurkezpenena ere. Azken aldizkariaz geroztik gertatu ekitaldi garrantzitsuei buruzko informazioa ematen du, hau da, 2019ko azken seihilekoan antolatu gertakariei buruzkoa.

Zehazki, honako informazio hauek aurkituko dituzue: Tokiko Hirigintza Planaren (THP) aitzinamenduaren egoera, udazkenean izaten diren urteko gertakarien bilana (Aste urdina, Uzta Hitzan), Tolosarekin senidetzearen 30. urtebetetzearen bilana eta abar.

Gure herrian gertakari anitz antolatu dira eta herri aldizkari honek hori argiki erakusten du.

2020ko urte ezin hobea opa dizuegu denei!

# Plan Local d'Urbanisme (PLU)

## La révision du Plan Local d'Urbanisme entre dans ses dernières périodes et le dernier semestre 2019 a été articulièrement important

### RAPPELS

Il convient tout d'abord de préciser que pour qu'un PLU soit exécutoire il doit d'abord passer par une phase d'arrêt, à l'occasion de laquelle le projet est rendu public. S'en suit une phase de consultation pendant laquelle un Commissaire Enquêteur rédige et remet un rapport et un avis. Sur cette base l'autorité compétente, rappelons que c'est la Communauté d'Agglomération Pays Basque (CAPB) qui depuis le 1er janvier 2017 a la compétence PLU, peut approuver le PLU et le rendre ainsi exécutoire.

L'étape d'arrêt s'est tenue en septembre 2018 et a ensuite été suivie par les étapes règlementaires de concertation et d'enquête publique. Pour cette dernière, le tribunal administratif a nommé un Commissaire Enquêteur qui a recueilli l'avis des Personnalités Publiques Associées (Etat, Chambre d'Agriculture, Région, SCOT, ...) et a réalisé l'enquête publique durant l'été 2019.

### AVIS DE MR LE COMMISSAIRE ENQUÊTEUR

Mr le Commissaire Enquêteur a remis son rapport et son avis, qui sont disponibles sur le site de la mairie (www.ustaritz.fr), début octobre 2019. Nous reprenons ici les éléments essentiels extraits du document «Avis et Conclusions du Commissaire Enquêteur ».

Dans ce document, en introduction, Mr le Commissaire Enquêteur fait le constat suivant : « Le dossier montre bien le désordre créé par le PLU très permissif de 2013, aggravé par la disparition du COS issue de la loi ALUR. Une révision générale limitant les possibilités d'urbaniser est bien indispensable afin de reprendre l'urbanisation en main et permettre à la commune de fournir les services et équipements publics nécessaires. »

Sa conclusion est ainsi rédigée : « Malgré des points négatifs indéniables, la balance des points positifs et négatifs penche plutôt favorablement au projet, en particulier en raison de l'économie d'espace générée et de la démarche systématique d'évitement des zones sensibles employée. »

L'alternative qui consisterait à repousser la mise en œuvre de la révision générale du PLU engendrerait une situation bien plus dommageable pour l'environnement, pour la population et pour la collectivité, perpétuant l'urbanisation anarchique qui a prévalu ces dernières années. La situation serait aussi aggravée par de gros projets aujourd'hui arrêtés grâce à un sursis à statuer en attente du nouveau PLU ».

L'avis de Mr le Commissaire Enquêteur est FAVORABLE à la révision générale du PLU.

### DERNIÈRES ÉTAPES

La commune d'Uztaritze a donné un avis favorable à ce projet de révision de PLU lors de son conseil municipal du 19 décembre.

Cet avis a été transmis à la Communauté d'Agglomération Pays Basque, qui est l'autorité compétente. L'approbation va être effectuée à l'occasion d'un Conseil Communautaire de début d'année pour que la nouvelle version du PLU soit exécutoire.

# Tokiko Hirigintza Plana (THP / PLU)

## FASEEN OROITZEA

Zehaztu behar da THP bat gauzatzeko, lehenik, erabaki-fase batetik pasa behar duela, eta, horren ondorioz, proiektua publiko egiten dela. Gero, kontsultaren fasean, komisario inkestagile batek txostena eta iritzia idatzi eta aurkeztu behar ditu. Hori oinarri hartuta, agintari eskudunak – oroitaraz dezagun 2017ko urtarrilaren 1etik Euskal Hirigune Elkargoak (EHE) duela THP-aren eskumena – THP onartzen ahal du, eta, hala, gauzagarri egiten ahal du.

Erabaki-fasea 2018ko irailean izan zen, eta, gero, hitzartzeko eta ikerketa publikorako arauzko etapak izan ziren. Azken horretarako, Administrazio Auzitegiak komisario inkestagile bat izendatu zuen, Pertsona Publiko Elkartuen (Estatua, Laborantzako Ganbara, Eskualdea, LAE...) iritzia jaso eta 2019ko udan ikerketa publikoa egin zuena.

## KOMISARIO INKESTAGILEAREN IRITZIA

Komisario inkestagileak bere txostena eta iritzia eman zituen, eta Herriko Etxearen webgunean (www.ustaritz.fr) eskuragarri dira, 2019ko urriaren hasieratik. « Komisario inkestagilearen iritziak eta ondorioak » dokumentutik ateratako funtsezko elementuak berreskuratuko ditugu hemen.

Dokumentu honetan, sarreran, Komisario inkestagile jaunak honako hau adierazi du: « Txostenak ongi erakusten du 2013ko arras debeku gutiko THP-ak sortutako desordena, eta ALUR legearen Lurren Okupazio Koefizientea desagertzeak hori larriagotu egiten du. Urbanizatzeko aukerak mugatzen dituen berrikuspen orokor bat ezinbestekoa da, urbanizazioari berriz ekiteko eta herriari beharrezko zerbitzu eta ekipamendu publikoak ematen uzteko. »

Dokumentuan, ondorioa honela idatzi da: « Ukaezinak diren puntu negatiboak izanagatik ere, puntu positiboen eta negatiboen balantza proiektuaren alde izatera ekarria da, batez ere sortutako espazioaren ekonomiagatik eta erabilitako eremu sentikorrak saihesteko planteamendu sistematikoagatik.

THP-aren berrikuspen orokorraren aplikazioari uko egiteak askoz egoera kaltegarriagoa sortuko luke ingurumenarentzat, biztanleentzat eta kolektibitatearentzat, azken urteotan nagusitu den urbanizazio anarkikoa betikotzen baitu. Egoera larriagotuko litzateke, halaber, THP berriaren zain dagoen gibelapen-erabaki bati esker gaur egun geldituta dauden proiektu handiengatik ».

Komisario inkestagile jaunaren iritzia THP-aren berrikusketa orokorraren ALDEKOA da.

## AZKEN ETAPAK

Uztaritzeko Herriko Etxeak THP berrikusteko proiektuaren aldeko iritzia eman zuen abenduaren 19ko herriko kontseiluan.

Iritzi hori Euskal Hirigune Elkargoari helarazi zaio, hura baita agintari eskuduna. Onespena urte hasierako elkargoko kontseiluan egingo du, THP-aren bertsio berria gauzagarria izan dadin.

**Tokiko Hirigintza Planaren (THP) berrikuspena azken faseetan sartu da. 2019ko azken urte erdia bereziki garrantzitsua izan da**

# TRAVAUX

Depuis début septembre, deux chantiers sont lancés sous la responsabilité de la commune : le premier l'aménagement et le revêtement du 1er tronçon de la RD 350 (route d'Arruntza), et le deuxième la pose d'une ligne haute tension souterraine qui traverse les quartiers d'Arruntza et Astobizkar par une compagnie privée (RTE). Ces chantiers génèrent des problèmes de circulation pour les habitants de ces quartiers. L'achèvement de ces travaux est malheureusement retardé à cause des fortes intempéries de cet automne.

Pendant les vacances d'été, les services techniques de la commune ont entrepris les travaux suivants dans les écoles ; l'aménagement d'une classe supplémentaire à l'école Idekia et à l'école d'Arruntza, l'agrandissement de la salle de plonge de la cantine du Bourg, le remplacement du jeu dans la cour de récréation de l'école d' Heraitze. Ce jeu en matière composite remplace les derniers jeux en bois, diminue les risques de blessures et assure une meilleure sécurité des enfants.

## AUTRES TRAVAUX :

**1** • Sécurisation Mentaberriko borda : mise à 30 km/h, interdiction plus de 3t5 et ligne médiane.
• 2 abris bus route d'Arruntza (Bordaberria et Mentaberrikoborda)
**3** **4** • Sécurisation rue Jauregia au Bourg : Peintures et poteaux
• Sécurisation Orok Bat poteaux chicane et peintures
• Eclairage public : Remplacement à Orok Bat des lampes au mercure par des lampes LED
**2** • Ralentisseur Rue du Bourg : plateau
• Création avec le CD64 d'un passage piétons pour traverser la route D88 près de la chapelle St Michel et rejoindre Etxehasia.
• Réfection du goudronnage de la place Heraitze et rue Aldabea
• Suite de la campagne de curage des fossés sur l'ensemble de la commune
• Mise en place de la signalétique pour les commerces et sites d'intérêt
• Traitement et gestion des eaux pluviales rue Dorrea à St Michel
**5** • Mise en place de mains courantes au cimetière du Bourg et chapelle St Michel et réfection de l'escalier à la chapelle.

# OBRAK

Irailaren hastapenetik, bi obra handi abiatu dira herriaren ardurapean: lehena, RD 350 errepidearen (Arruntzako bidea) lehen zatiaren egokitzea eta estaltzea, eta, bigarrena, enpresa pribatu batek (RTE) Arruntzako eta Astobizkarreko auzoak zeharkatzen dituen lurpeko goitentsioko linea baten ezartzea. Obra horiek zirkulazio arazoak sortzen dituzte auzo horietako bizilagunentzat. Zoritxarrez, udazkeneko aro txarrarengatik, lan horien bururapena gibelatu behar izan da.

Udako oporretan, herriko zerbitzu teknikoek honako lan hauek egin dituzte eskoletan: ikasgela osagarri baten antolatzea Idekia eskolan eta Arruntzako eskolan, Burguko jantegiko baxerak egiteko gelaren handitzea, Heraitzeko eskolako jostalekuko jokoaren ordezkatzea. Ekai-konposatuko joko horrek orain arteko zur-jokoak ordezkatzen ditu, zauriak izateko arriskua ttipitzen du eta haurren segurtasuna hobetzen du.

## BESTE LANAK:

**1** • Mentaberrikoborda bidean segurtasun neurriak hartzea: abiadura 30 km/h-ra mugatzea, 3t5-ko kamioiei bidea debekatzea eta bide erdiko marraren tindatzea.
• Arruntzako bidean (Bordaberria eta Mentaberrikoborda) bi autobus aterperen ezartzea
**3** **4** • Burguko Jauregia karrikan segurtasun neurriak hartzea: pinturak eta zutoinak
• Orok Bat etxe multzoan segurtasun neurriak hartzea: zutoinak, sigi-sagak eta pinturak
• Argiztapen publikoa: Orok Bat etxe multzoan merkuriozko lanparak LED lanparekin ordezkatzea
**2** • Burguko karrikan abiadura eztitzaile baten ezartzea
• Oinezkoek San-Mixel kaperatik hurbil D88 bidea zeharkatzeko eta Etxehasiara joateko pasabide baten ezartzea, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrarekin.
• Heraitzeko plazaren eta Aldabea karrikaren berriz mundrunatzea
• Herri osoan abiatu arroilen garbitzeko kanpainarekin segitzea
• Saltegiak eta interes guneak aipatzen dituzten seinaleak ezartzea
• San-Mixeleko Dorrea karrikan euri uren tratatzea eta kudeatzea
**5** • Burguko hilerrian eta San-Mixel kaperan gertakari liburu baten ezartzea eta kaperako eskailera egokitzea.

5



1



2



4



3



HEZKUNTZA / EDUCATION

# UZTARITZEKO GAZTE GUNEAK BETI BEZAIN AKTIBO JARRAITZEN DU



Uztaritzeko gazte guneak beti bezain aktibo jarraitzen du. Adibide bat emateko, azken eskola oporretan helburu pedagogiko berriak plantan eman ditu, « zuk zeuk egizu» izpiritua eta gormandiza ardatz! Hala, hor ziren gazteek gauzak anitz egiten ikasi ahal izan zuten: josten Aloïsen goiz guzietako tailerrei esker, bizikletak konpontzen Hangar du Sport birzikla lekuari esker, marrubiak landatzen, argazkiak egiten, molde sano, fresko eta berdean kozinatzen Linda Charlierrekin egin « Master Chef » sukaldaritza tailerrean. Azken tailer honi esker eta egunero zerbitzatu askari desberdinei esker, gazteek dastamen papilak landu dituzte eta Hemengo saltegiko eta Landaldea etxaldeko tokiko mozkinak, ekoizpen biologikoak eta sanoak jan dituzte. Animatzaileekin, gazteek kirola egin ahal izan dute. Halloween-en karietara animatzaileek sortu escape game jokoan eta gaubeilan beldurrarekin jostatu dira. Eta, azkenik, gazte gunea beren gisara apaindu ahal izan dute, soailua eta kanpoko terraza grafitiekin margotuz.

Nola izena eman? Lehenik, izen-emateko orria bete eta Mailiarena gazte gunera posta bidez (Geltkiko bidea, 11), edo e-postaz (espacejeunes@ustaritz.fr) igorri. Gero, nahi dituzuen datak erreserbatu, e-postaz edo herriko intraneteko familia ataletik: https://www.ustaritz.fr/fr/jeunesse-vie-scolaire/portail-famille.html.

Zer egiten dugu? Asteazkenetako eta oporretako egitaraua beti aitzinetik igortzen dizuegu, zuek izen-emateko txostena bete ondoan. Egitaraua herriaren webgunean ikus daiteke ere: **https://www.ustaritz.fr/fr/jeunesse-vie-scolaire/espace-jeunes.html**

Noiz? Gazte gunea asteazken guziez eta eskola opor kasik guziez zabalik da. Uztaritzen, Jatsun, Haltsun edo Larresoron bizi diren eta kolegioko seigarrenetik lizeoko terminalera ikasle diren gazte guziak jin daitezke. Argibide gehiagorentzat, deitu: 05.59.93.37.68.



# L'ESPACE JEUNES D'UZTARITZE EST TOUJOURS AUSSI ACTIF

L'Espace Jeunes d'Uztaritze est toujours aussi actif. Pour exemple, ces dernières vacances de nouveaux objectifs pédagogiques ont été portés favorisant le « do it yourself » et la gourmandise ! Les jeunes présents ont ainsi pu découvrir la couture grâce aux ateliers d'Aloïse tous les matins, apprendre à réparer des vélos avec le Hangar du Sport, planter des fraisiers, faire de la photographie ou encore cuisiner de façon saine, fraîche et végétale lors d'ateliers cuisine « Master Chef » en compagnie de Linda Charlier. Avec cette dernière et par la mise en place de goûters variés, ils ont pu ainsi développer leurs papilles à partir de produits locaux issus du magasin Hemengo et de la ferme Landaldea, produits en bio ou raisonnés. Avec leurs animateurs, les jeunes ont également pu faire du sport, jouer lors des veillées de l'horreur et de l'escape game créé par l'équipe pour Halloween, et enfin continuer à s'approprier leur structure en décorant les plafonds et en agrémentant la terrasse extérieure de grafs au pochoir.

Comment venir ? Il suffit de remplir un dossier d'inscription à remettre à l'Espace Jeunes à Mailiarena, 11 route de la gare, ou par mail à espacejeunes@ustaritz.fr, puis de réserver les dates souhaitées, par mail ou via l'intranet de la commune sur le portail famille : https://www.ustaritz.fr/fr/jeunesse-vie-scolaire/portail-famille.html.

Qu'est-ce qu'on y fait ? Le programme des mercredis et vacances est envoyé avant chaque période dès lors qu'un dossier a été constitué, et il est à disposition sur le site de la commune : **https://www.ustaritz.fr/fr/jeunesse-vie-scolaire/espace-jeunes.html**

On y va quand ? L'Espace Jeunes est ouvert tous les mercredis et pendant la majorité des vacances scolaires. Ce lieu est accessible à tous les jeunes de la 6ème à la terminale habitant sur Uztaritze, Jatxou, Halsou ou Larressore. Pour plus d'informations, téléphone de la structure : 05.59.93.37.68.

# « Je peux pas… j'ai centre de loisirs ! »

Depuis la rentrée scolaire, le centre de loisirs Eki Begia ne désemplit pas. Avec une équipe motivée et dynamique, les activités diverses et variées sont au rendez-vous !

Pour cette fin d'année, le programme est toujours aussi riche. Fin novembre les enfants ont eu la possibilité de réaliser des activités en partenariat avec le lycée St Joseph d'Uztaritze et ils ont eu début décembre la visite du Clown ZAMBET !…

« *Alors tu fais quoi toi, Louis, mercredi ?…..eh beh je vais m'éclater parce que je suis inscrit au centre de loisirs !!!* »

Comment venir ? Il suffit de remplir un dossier d'inscription à remettre au CLSH Eki Begia 91 bâtiment Lagunen Etxea, ou par mail à clsh.ekibegia@ustaritz.fr, puis de réserver les dates souhaitées, par mail ou via l'intranet de la ville sur le portail famille : www.ustaritz.fr/fr/jeunesse-vie-scolaire/portail-famille.html.

# « Ezin dut… aisialdi zentrora noa! »

Eskola sartzetik, Eki Begia aisialdi zentroa bete-betea da! Langile talde motibatua eta dinamikoari esker, egitarauan aktibitate desberdin anitz daude!

2019 urtearen bukaeran, egitaraua aberatsa izan da ere. Azaroaren hondarrean, haurrek Uztaritzeko San Josepe lizeoarekin partaidetzan aktibitateak egin ahal izan dituzten. Abenduaren hastapenean, ZAMBET pailazoa jin zitzaien bisitan.

« - *Beraz, zer egiten duzu Luis asteazkenean?*
- *Bada… Loriatuko naiz, aisialdi zentroan izena eman baitut!* »

Nola izena eman? Lehenik, izen-emateko orria bete eta Eki Begia aisialdi zentrora posta bidez (Bilguneko plaza, 91, Lagunen Etxea), edo e-postaz (clsh.ekibegia@ustaritz.fr) igorri. Gero, nahi dituzuen datak erreserbatu, e-postaz edo herriko intraneteko familia ataletik: www.ustaritz.fr/fr/jeunesse-vie-scolaire/portail-famille.html.









# Le Point Information Jeunesse d'Uztaritze

Cette année le PIJ a décidé d'aller se présenter auprès des nouveaux élèves du lycée Saint Joseph et aux 4ème et 3ème du collège Saint François Xavier. Des permanences ont été organisées régulièrement dans ces deux établissements.

Suite à ces rencontres, les jeunes ont ainsi pu prendre conscience de l'existence d'un service pour eux et de nombreux lycéens et collégiens d'Uztaritze ont pris rendez-vous pour l'orientation, la création de CV ou lettres de motivation, des questions sur le logement, le service civique, sur les départs en Europe, pour s'inscrire au BAFA ...

## Café entre parents

Une conférence sur le harcèlement a été organisée le 15 novembre. Le PIJ avait mis en place un système de garde pour les enfants des participants assuré par les jeunes de la Junior Association Gazteen Elkartea. Mme Mendizabal Sandrine, neuropsychologue, est intervenue pendant 2 heures et a fourni des outils pour lutter contre le harcèlement, accompagner un harceleur et un harcelé, pour détecter un enfant harcelé. Ce fut un échange riche.

Une deuxième conférence a été organisée le 13 décembre sur « les dérives du numérique ». Le numérique est une grande question d'actualité, un outil pratique et dangereux à la fois pour les enfants et adolescents. Cette conférence a clôturé l'année 2019. L'expérience Café entre parents sera reconduite en 2020.

# Uztaritzeko Gazte Informazio Gunea

2019an, Gazte Informazio Bulegoak erabaki du San Josepe lizeoko ikasle berriei eta Frantses Xabier kolegioko laugarreneko eta hirugarreneko ikasleei BIG-en aurkeztea. Horretarako, bi ikastetxe horietan permanentziak antolatu ditu.

Aurkezpen horiei esker gazteak ohartu dira haientzat zerbitzu berezi bat dagoela. Uztaritzeko kolegioko eta lizeoko ikasleek hitzorduak hartu dituzte, orientazioaz mintzatzeko, curriculum edo motibapen gutun baten idazteko, bizitegiari buruzko galderak pausatzeko, zerbitzu zibikoa aipatzeko, Europara joateko bideak ezagutzeko, AIGA-n izena emateko...

## Kafe bat burasoen artean

Jazarpenari buruzko mintzaldi bat antolatu zen azaroaren 15ean. GIB-ek mintzaldian parte hartu zuten burasoen haurrak atxikitzeko sistema bat plantan ezarri zuen, Junior Association Gazteen Elkarteko gazteekin. Sandrine Mendizabal neuropsikologo andereak bi oreneko hitzaldia eman zuen eta jazarpenaren kontra egiteko, jazarleari eta jazartuari laguntzeko edo haur jazartu bat ezagutzeko tresnak eman zituen. Mintzaldia arras interesgarria izan zen.

Abenduaren 13an beste mintzaldi bat antolatu zen, « mundu digitalaren lerratze eta gehiegikeriei buruz». Digitala gaur egungo gaia da. Tresna praktikoak dira, baina aldi berean lanjerosak ere, bereziki haur, gazte eta nerabeentzat. Hau izan zen 2019ko azken mintzaldia. 2020an Kafe bat burasoen artean gertakari gehiago izanen dira.





# DOTATION ANNUELLE EN MATÉRIEL DES 3 ÉCOLES PUBLIQUES

Dotation annuelle en matériel des 3 écoles publiques. Pour cette rentrée scolaire 2019, afin de répondre au mieux aux demandes d'investissement des équipes enseignantes et à l'augmentation des effectifs, les dotations ont été :

**Ecole Idekia :** 1 Vidéo Projecteur Interactif (VPI) et 5 ordinateurs portables. Les travaux d'aménagement d'une nouvelle classe ont été finalisés pour la rentrée avec du nouveau mobilier et du matériel pédagogique.

**Ecole d'Heraitze:** 2 bancs et une nouvelle structure de jeux d'extérieur.

**Ecole d'Arruntza:** 1 Vidéo Projecteur Interactif (VPI) et un ordinateur portable.

Les travaux d'aménagement d'une nouvelle classe ont été finalisés pour la rentrée avec du nouveau mobilier et du matériel pédagogique.

# HIRU ESKOLA PUBLIKOEI EGIN URTEKO MATERIAL-EMAITZAZ

Hiru eskola publikoei egin urteko material-emaitza. 2019-2020ko eskola sartzean, irakasle taldeen inbestimendu galdeei eta ikasle kopuruen emendatzeari ahal bezain ongi erantzuteko, material-emaitza horiek egin ziren:

**Idekia eskola:** Bideo proiektagailu interaktibo bat eta bost ordenagailu eramangarri. Ikasgela berri bat antolatzeko lanak eskola sartzea aitzin bururatu ziren, altzari eta material pedagogiko berriekin.

**Heraitzeko eskola:** Bi aulki eta kanpoko jokoen egitura berri bat.

**Arruntzako eskola:** Bideo proiektagailu interaktibo bat eta ordenagailu eramangarri bat.

Ikasgela berri bat antolatzeko lanak eskola sartzea aitzin bururatu ziren, altzari eta material pedagogiko berriekin.

# LES ECOLES DE LA COMMUNE

Les effectifs des 5 écoles de la commune sont en progression. En prévision de cette hausse, en ce qui concerne les 3 écoles publiques de la commune, des aménagements ont été réalisés dans les locaux des écoles Idekia et Arruntza. Ainsi, une classe supplémentaire a été créée dans chacune de ces 2 écoles.

**Idekia :** 161 élèves dont 37 en classe bilingue. **Heraitze :** 110 élèves. **Arruntza :** 180 dont 101 en bilingue. **St Vincent :** 209 élèves dont 98 en bilingue. **Ikastola :** 98 élèves. Soit un total de 758 enfants (733 en 2018).

Cette hausse a des répercussions dans la fréquentation des services d'accueils périscolaires, de restauration collective et du Centre de Loisirs. Des réflexions ont été menées et des aménagements ont été faits dans l'organisation de ces différents services. De plus, des locaux supplémentaires (à l'école Idekia) ont été mis à la disposition du Centre de Loisirs pendant les vacances.

# HERRIKO ESKOLAK

Herriko bost eskoletan, ikasleen kopurua emendatu da. Emendatzeei erantzuteko, herriko hiru eskola publikoetan, eta bereziki Idekia eskolako eta Arruntzako eskolako eraikinetan lanak egin dira. Hala, bi eskola horietan ikasgela bat gehiago sortu da.

**Idekia:** 161 ikasle, haietan 37 sail elebidunean. **Heraitze:** 110 ikasle. **Arruntza:** 180 ikasle, haietan 101 sail elebidunean. **Jondoni Bixintxo:** 209 ikasle, haietan 98 sail elebidunean. **Ikastola:** 98 ikasle. Orotara, 758 ikasle (733 ikasle 2018an).

Emendatze honen ondorioz eskolaldi inguruko harrera-zerbitzuetan, jantegietan eta aisialdi zentroan gero eta haur gehiago bada. Gogoetak izan dira eta zerbitzu horien arteko antolamenduak berrikusi dira. Gainera, eskola oporretan (Idekia eskolako) eraikin gehiago aisialdi zentroaren esku ezarri dira.

# 6ème édition du festival UZTA HITZAN

# UZTA HITZAN festibalaren 6. edizioa





La 6ème édition du festival UZTA HITZAN, semaine de l'Euskara proposée par la commune, s'est déroulée cette année du 23 au 30 novembre et un public nombreux a répondu présent aux différents rendez-vous.

Un moment important cette année : la célébration le samedi 23 des 60 ans d'Ikas avec une exposition, un spectacle de Jokin Irungarai et Kattalin Sallaberry, une prise de paroles d'un représentant de la commune, de la présidente d'Ikas, du délégué à la politique linguistique de la Communauté d'Agglomération Pays Basque et de la directrice d'Ikas  Un apéro dinatoire à la Petite Auberge a clôturé cette belle journée.

Il faut aussi souligner que cette année la CAPB a organisé Euskararen Urtaroa , la quinzaine de la langue basque du 14 au 30 novembre . En partenariat avec les communes et les associations une centaine de rendez-vous a été proposée. A Uztaritze, 2 animations ont été organisées dans ce cadre : un parcours exposition autour de la mythologie basque et une soirée théâtre : l'adaptation scénique de la BD satirique éponyme d'Asisko inspirée des aventures de Robinson Crusoe.

Un grand merci à toutes les associations qui ont participé à ce festival (Zortziko,Gaztetxe/Ikas) , à la CAPB et aux agents de la médiathèque.

Azaroaren 23tik 30era, UZTA HITZAN festibalaren 6. edizioa iragan zen. Herriko Etxeak antolatzen duen euskararen aldeko hitzordu horietan, jende anitz bildu zen.

Aurtengo memento azkarra: azaroaren 23an, larunbatean ospatu zen Ikas-en 60. urtebetetzea. Erakusketa bat izan zen, Jokin Irungarai eta Kattalin Sallaberryren ikuskizun bat izan zen, eta herriko ordezkari baten, Ikaseko lehendakariaren, Euskal Hirigune Elkargoko hizkuntza politikaren ordezkariaren eta Ikaseko zuzendariaren hitz hartzeak izan ziren. Eta egun eder hura bururatzeko, La Petite Auberge jatetxean aperitifa-afaria antolatu zen.

Azpimarratu behar da aurten EHEk Euskararen Urtaroa antolatu duela, azaroaren 14tik 30era. Herriekin eta elkarteekin elkarlanean, ehun bat hitzordu proposatu zituen. Uztaritzen, bi animazio antolatu ziren Euskararen Urtaroaren barnean. Euskal mitologiari buruzko erakusketa ibilaldi bat eta antzerki gaualdi bat: Robinson Crusoeren abenturez inspiratutako Asisko marrazkilariaren Eusklabo Alaiak komikiaren egokitzapena.

Milesker handi bat festibal honetan parte hartu duten elkarte guziei (Zortziko, Gaztetxea, Ikas), EHEri eta mediatekako langileei.



**Marikita Tambourin etnologo eta idazlearen mintzaldia, emazteen lekuari buruz gure jendartean** / La conférence de Marikita Tambourin (Ethnologue/écrivain) sur la place de la femme dans notre société



**Haurrendako ipuin irakurketa, Itxaro Goyhenecheren ahotik** / Lecture de contes pour les enfants par Itxaro Goyheneche



**Robinson Crusoeren abenturez inspiratutako Asisko marrazkilariaren Eusklabo Alaiak komikiaren egokitzapena**
Adaptation scénique de la BD satirique éponyme d'Asisko inspirée des aventures de Robinson Crusoe



**Mintzapraktika gaztetxeko gazteekin: jokoen bidez euskaraz mintzatzea** / Mintzapraktika avec les jeunes du Gaztetxe : Pratiquer l'euskara à travers le jeu



**Maialen ALFAROren Altxorraren Bila! haurrendako ikusgarria** / Le spectacle pour enfants : Altxorraren Bila !



**Eusko Dorrea antzerkia, Izturitzeko Gazteriak emanik** / Pièce de théâtre Eusko Dorrea jouée par la troupe Izturitzeko Gazteria.

# Plantation participative
## FORÊT HARDOIA

La commune d'Uztaritze et les agents de l'Office National des Forêts ont organisé le dimanche 8 décembre une plantation participative qui s'est déroulée dans le secteur d'Hardoia. Les glands ont été récoltés dans une parcelle de chênes sessiles dans une forêt des environs et le bon nombre de participant-e-s qui avaient répondu présents les ont replantés sous les conseils de Christophe Chopin responsable ONF du secteur et de son apprenti. Cette action a comme objectif de participer concrètement au renouvellement de la forêt avec l'implication directe des uztariztar. Merci à tou-te-s les participant-e-s, Christophe, Peio et le président de l'association de chasse de nous avoir permis de pouvoir embellir une partie de notre forêt.



# Landaketa parte hartzailea
## HARDOIA OIHANA

2019ko abenduaren 8an, igandearekin, Uztaritzeko herriak eta Office National des Forêts erakundeko langileek arbolen landaketa parte hartzailea antolatu zuten, Hardoi inguruan. Haritz kandugabeak dituen lur batean, han inguruko oihan batean, ezkurrak bildu ziren. Jende anitz hurbildu zen eta ezkurrak sektoreko ONF-eko arduraduna den Christophe Chopin-en eta bere aprendizaren aholkuen arabera landatu zituzten. Ekintza honen xedea da oihanaren arraberritzean konkretuki parte hartzea eta eginkizun horretan uztariztarrak zuzenean inplikatzea. Milesker parte hartzaile guziei, Christopheri, Peiori eta ihizi elkarteko lehendakariari, gure oihanaren zati bat edertzeko aukera emanik.

ENARGIA

La commune d'Uztaritze veut poursuivre son engagement pour le développement des énergies renouvelables. Après avoir été la première commune à avoir fait confiance à la société de production d'énergie citoyenne I-ENER en lui mettant à disposition 2 toitures de bâtiments communaux pour l'installation de panneaux photovoltaïques (aujourd'hui plus de 15 projets ont vu le jour), la commune a rencontré ENARGIA pour étudier l'alimentation électrique de certains bâtiments communaux par ce nouveau fournisseur.

ENARGIA est une coopérative d'intérêt collectif nouvellement créée, commercialisant sur le territoire de l'agglomération Pays Basque, une électricité 100% renouvelable. Depuis l'ouverture de son offre au 1er juillet, ENARGIA compte 600 clients dont 550 particuliers et 50 professionnels. Une rencontre a eu lieu en mairie et, dans le but de présenter la structure et son offre à tous les Uztariztar, une réunion publique d'information a été organisée le 3 décembre sur la commune.

---

Uztaritzeko herriak energia berriztagarriak garatzeko hartu duen engaiamendua obratu nahi du. I-ENER energia herritarra ekoizteko sozietateari konfiantza egiten lehen herria izan zen. Herriko eraikinetako bi teilatu utzi zizkion, panel fotovoltaikoak instalatzeko (egun, 15 proiektu baino gehiago gauzatu ditu). Berriki, Uztaritzeko herria ENARGIArekin bildu da, elektrizitate hornitzaile berri honek herriko eraikin batzuetako elektrika hornikuntza egin dezakeen aztertzeko.

ENARGIA interes kolektiboko kooperatiba berri bat da. Euskal Hirigune Elkargoaren lurraldean, %100 berriztagarria den elektrizitatea merkaturatzen du. 2019ko uztailaren 1ean elektrika eskaintza ireki zuen. Egun, ENARGIAk 600 bezero ditu, haietan 550 partikularrak eta 50 profesionalak. Herriko Etxean haiekin bildu ginen, eta, uztariztar guziei ENARGIAren egitura eta eskaintza aurkezteko bilkura publiko bat antolatu zen herrian, abenduaren 3an.

# COMITÉS DE QUARTIER

Depuis la mise en place, fin 2014-début 2015, des 6 comités de quartier par la mairie, de nombreuses propositions pour améliorer la vie de leur quartier ont été émises par les participants.  Elles ont toutes été examinées et pour beaucoup d'entre elles ont déjà pu être réalisées. Exemples de petits aménagements réalisés dernièrement :

- Sécurisation de l'escalier pour accéder au fronton d'Arruntza par la mise en place d'une rembarde
- Mise en place de boîtes à livres sur les fronton d'Heraitze et Arruntza
- Rampe à la chapelle St Michel

# AUZO BATZORDEAK

Herriko Etxeak 6 auzo-batzorde sortu zituenetik (2015 urtearen bukaeran), auzoetako bizia hobetzeko hainbat proposamen egin dituzte parte-hartzaileek. Denak aztertu dira eta horietako anitz obratu ahal izan dira.
Azkenaldian egindako instalazio ttipi batzuen adibideak:

- Arruntzako pilota plazara heltzeko eskaileraren segurtasunaren indartzea, baranda baten bidez.
- Liburu-kutxak jartzea Heraitzeko eta Arruntzako pilota plazetan.
- San-Mixeleko kaperan sartzeko bide baten jartzea.





# AAPPMA

La commune a financé, dans le cadre d'une mesure compensatoire, la restauration d'une frayère à brochets au niveau du secteur Astolobaita sur la Nive. Ce projet porté par l'Association Agréée pour la Pêche et la Protection du Milieu Aquatique (AAPPMA) a été réalisé en juin 2019. Il a permis de remettre en eau cette frayère afin qu'elle retrouve sa fonction écologique. La préservation et la restauration de ces milieux sont des enjeux forts car ils sont caractérisés par une richesse faunistique et floristique importante. En effet, ce milieu est favorable à la sauvegarde de tout un cortège d'espèces (poissons, batraciens, invertébrés, plantes, oiseaux, etc.).

Herriak, konpentsazio-neurri baten barnean, Astolobaita sektorean Errobi ibaiaren gaineko lutxo-errutoki baten lehengoratzea finantzatu zuen. Arrantzarako eta Ur Ingurunea Babesteko Elkarte Baimenduaren (AAPPMA) xede hau 2019ko ekainean gauzatu zen. Errutoki hori berriz uretan jarri zen, bere funtzio ekologikoa berreskura dezan. Ingurune horiek zaintzea eta lehengoratzea erronka garrantzitsuak dira, bereziki fauna- eta flora-aberastasun handia dutelako. Izan ere, ingurune hori espezie ugari babesteko egokia da (arrainak, anfibioak, ornogabeak, landareak, hegaztiak eta abar).




Crédit photos : AAPPMA

# L'ACCESSIBILITE NUMERIQUE, OU LE REFERENTIEL GENERAL D'AMELIORATION DE L'ACCESSIBILITE (RGAA), C'EST QUOI ?

**La notion d'accessibilité numérique**

Le handicap est défini comme : « toute limitation d'activité ou restriction de participation à la vie en société subie dans son environnement par une personne en raison d'une altération substantielle, durable ou définitive d'une ou plusieurs fonctions physiques, sensorielles, mentales, cognitives ou psychiques, d'un polyhandicap ou d'un trouble de santé invalidant » (article L. 114 du code de l'action sociale et des familles).

L'accessibilité numérique consiste à rendre les services de communication au public en ligne accessibles aux personnes en situation de handicap, c'est-à-dire :

**perceptibles :** par exemple, faciliter la perception visuelle et auditive du contenu par l'utilisateur ; proposer des équivalents textuels à tout contenu non textuel ; créer un contenu qui puisse être présenté de différentes manières sans perte d'information ni de structure (par exemple avec une mise en page simplifiée);

**utilisables :** par exemple, fournir à l'utilisateur des éléments d'orientation pour naviguer, trouver le contenu; rendre toutes les fonctionnalités accessibles au clavier; laisser à l'utilisateur suffisamment de temps pour lire et utiliser le contenu; ne pas concevoir de contenu susceptible de provoquer des crises d'épilepsie;

**compréhensibles :** par exemple, faire en sorte que les pages fonctionnent de manière prévisible; aider l'utilisateur à corriger les erreurs de saisie.

**robustes :** par exemple, optimiser la compatibilité avec les utilisations actuelles et futures, y compris avec les technologies d'assistance.

Les mairies sont concernées par l'obligation d'accessibilité des services de communication au public.

Les services de communication au public en ligne sont définis comme toute mise à disposition du public ou de catégories de public, par un procédé de communication électronique, de signes, de signaux, d'écrits, d'images, de sons ou de messages de toute nature qui n'ont pas le caractère d'une correspondance privée (article 1er de la loi n° 2004-575 du 21 juin 2004 pour la confiance dans l'économie numérique).

Conformément au II de l'article 47 de la loi du 11 février 2005 précitée, ils comprennent notamment :

- les sites internet, intranet, extranet; les progiciels (ensemble de logiciels), dès lors qu'ils constituent des applications utilisées au travers d'un navigateur web ou d'une application mobile ;
- les applications mobiles qui sont définies comme tout logiciel d'application conçu et développé en vue d'être utilisé sur des appareils mobiles, tels que des téléphones intelligents (smartphones) et des tablettes, hors système d'exploitation ou matériel ;
- le mobilier urbain numérique, pour leur partie applicative ou interactive, hors système d'exploitation ou matériel.

Certains contenus sont exemptés de ce dispositif.

Une déclaration de conformité doit être clairement identifiée sur la page d'accueil du site de la commune.

La déclaration de conformité du site « ustaritz.fr » a été établie le 04/01/2018. La version du RGAA utilisée pour réaliser les tests, est la version 3, de 2017.

La version 4 du RGAA a été arrêtée conjointement par la ministre chargée des personnes handicapées et le ministre chargé du numérique le 20 septembre 2019 : il conviendra de l'atteindre dans les prochains mois.

Un référent a été désigné à la mairie d'Uztaritze, il a suivi une formation de 5 jours organisée par la Communauté d'agglomération Pays Basque.

# IRISGARRITASUN DIGITALA, EDO IRISGARRITASUNA HOBETZEKO ERREFERENTZIA-SISTEMA OROKORRA, ZER DA?

**Irisgarritasun digitalaren nozioa**

Ahalmen urritasuna honela definitzen da: «pertsona batek bere inguruan duen gizarteko bizitzan parte hartzeko jarduera-muga edo murrizketa oro, funtzio fisiko, sentsorial, mental, kognitibo edo psikiko baten edo gehiagoren, urritasun anizkoitz baten edo osasun-nahaste baliogabetzaile baten funtsezko, iraupen luzeko edo behin betiko aldaketaren ondorioz» (gizarte-ekintzaren eta familien kodearen L. 114. artikulua).

Irisgarritasun digitalaren bidez, jendearentzako lineako komunikazio-zerbitzuek urritasuna duten pertsonentzako irisgarriak izan behar dute, hau da:

**hautemangarriak:** adibidez, erabiltzailearentzat edukiaren ikusizko eta entzumen-pertzepzioa erraztea; testuz kanpoko edozein edukiren baliokide testualak proposatzea; informazioa eta egitura galdu gabe modu desberdinetan ager daitekeen edukia sortzea (adibidez, maketazio sinplifikatu baten bidez);

**erabilgarriak:** adibidez, erabiltzaileari orientazio-elementuak ematea nabigatzeko, edukia aurkitzeko; teklatuaren funtzionalitate guztiak eskuragarri jartzea; erabiltzaileari edukia irakurtzeko eta erabiltzeko denbora nahikoa uztea; krisi epileptikoak eragin ditzakeen edukia ez diseinatzea;

**ulergarriak:** adibidez, orrialdeak pentsa daitekeen moduan dabiltzala ziurtatzea; erabiltzaileari sarrera-akatsak zuzentzen laguntzea.

**eta sendoak:** adibidez, gaur egungo eta etorkizuneko erabilerekiko bateragarritasuna optimizatzea, baita laguntza-teknologiekiko bateragarritasuna ere.

Herriko Etxeek herritarrentzako komunikazio-zerbitzuak irisgarri izateko obligazioa bete behar dute.

Herritarrentzako lineako komunikazio-zerbitzuak honela definitzen dira: jendearen edo publiko-kategorien eskura lineako komunikazio-zerbitzuak jartzea, komunikazio elektronikoaren, zeinuen, seinaleen, idazkien, irudien, soinuen edo edozein motatako mezuen bidez, baldin eta ez badira korrespondentzia pribatu bat (2004ko ekainaren 21eko ekonomia digitalean konfiantza izateko 2004-575 legearen 1. artikulua).

Gorago aipatutako 2005eko otsailaren 11ko legearen 47. artikuluarekin bat, lineako komunikazio-zerbitzuetan honako hauek sartzen dira:

- webguneak, intraneta, estraneta; software-paketeak, baldin eta web-nabigatzaile baten edo aplikazio mugikor baten bidez erabiltzen diren aplikazioak badira;
- gailu mugikorretan erabiltzeko diseinatutako eta garatutako edozein aplikazio-software gisa definitzen diren aplikazio mugikorrak; adibidez, telefono adimendunak (smartphone) eta tabletak, sistema eragiletik edo hardwaretik kanpo;
- hiri-altzari digitalak, aplikaziokoak edo interaktiboak, sistema eragiletik edo materialetik kanpo.

Eduki batzuk baliabide horretatik salbuetsita daude.

Herriko webgunearen hasierako orrian araberakotasun-adierazpen bat identifikatu behar da argi eta garbi.

«Ustaritz.fr» webgunearen araberakotasun-adierazpena 2018/01/04an ezarri zen. Probak egiteko erabiltzen den Irisgarritasuna Hobetzeko Erreferentzia-Sistema Orokorraren bertsioa 3. bertsioa da, 2017koa.

Irisgarritasuna Hobetzeko Erreferentzia-Sistema Orokorraren 4. bertsioa 2019ko irailaren 20an onartu zuten ahalmen urritasuna duten pertsonen ministroak eta gai digitalen ministroak. Komeni da ondoko hilabeteetan gauzatzea.

Uztaritzeko Herriko Etxean erreferente bat izendatu da eta Euskal Hirigune Elkargoak antolatutako 5 eguneko formakuntza jaso du.

# INSTITUTION DE LA PROCEDURE D'ENREGISTREMENT DES MEUBLES DE TOURISME

Particulièrement attractives du point du vue touristique, les communes du Pays Basque observent depuis plusieurs années le développement des locations de meublés de tourisme profitant de l'essor des plateformes de mise en location des meublés sur internet.

Afin de mieux évaluer le nombre et l'évolution des meublés de tourisme, la commune d'Uztaritze souhaite instituer la procédure de leur enregistrement.

A partir du 1er janvier 2020, le changement d'usage des locaux d'habitation sera soumis à autorisation selon le règlement voté par le conseil communautaire de la CAPB du 28 septembre dernier. Ce règlement s'applique dans les 24 communes (Uztaritze en fait partie) de la zone tendue au sens de l'article 232 du code général des impôts. Uztaritze se situant dans la zone 3 dite de faible tension, le nombre d'autorisations n'est pas limité.

Pour notre commune, la Communauté d'Agglomération Pays Basque mettra en place un télé-service permettant la déclaration de la location saisonnière dans les résidences secondaires mais également principales qui générera, pour chaque propriétaire, un numéro d'enregistrement nécessaire et indispensable pour une mise en location de son meublé de tourisme sur les plateformes de réservation en ligne collaborative, sans frais pour la commune.

Cette procédure permettra d'avoir une meilleure visibilité du développement des meublés touristiques sur le plan quantitatif et qualitatif en alimentant un observatoire dédié à ce phénomène.

# TURISMOKO APARTAMENTU MUBLATUAK ERREGISTRATZEKO PROZEDURAREN FINKATZEA

Turismoaren ikuspegitik, bereziki erakargarriak dira ipar Euskal Herriko herriak. Badu zenbait urte turismoko apartamentu mublatuen alokatzea garatzen ari dela, etxebizitza hornituen alokatze plataformen garapenaren ondorioz

Turismoko apartamentu mublatuen kopurua eta bilakaera hobeki ebaluatzeko, Uztaritzeko herriak haiek erregistratzeko prozedura finkatu nahi du.

